

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Leioa



Aurkibidea

Udalerria: Leioa

Sarrera



Bizkaiko iparraldeko udalerria, Bilbo Handia eskualdekoa. Bilboko itsasadarren eskuinaldean kokatuta dago. 1526an sortua, Leioa ezaguna da bertan daudelako Euskal Herriko Unibertsitatearen errektoretza eta Bizkaiko campusaren egoitza. Mendebaldean Getxorekin egiten du muga, iparraldean Berangorekin, ekialdean Erandioarekin, eta hegoaldean Ibaizabal ibaiarekin.

- **Biztanleak:** 31.197
- **Euskaldunak:** %29,53

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **8**
- Transkribatutakoak: **8**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **8**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskalkiak.eus
- Fondo partikularrak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Gloria Basañez Aresti

Leioakoa. 75 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean.

Juani Elordui Barzena (1929)

Leioako Goierrikoa. Lore eta landareen inguruko azalpen ugari eman zituen 1999an egin zioten elkarrizketan. 70 urte zituen orduan.

Alizia Elorduizapaterietxe Etxebarria

Santsoenea auzoko Domingorren baserrian jaioa. Hamar neba-arrebatatik seigarrena. Eskolan dena gaztelaniaz ikasi zuen. Ez zen asko ibili eskolan. Hamabi urterekin neskame joan zen, beste ume batzuk zaintzera. 15-16 urterekin, ahizpa ezkondu zenean, plazara joaten zen etxeko elikagaiak saltzera. 24 urte zituela ezkondu zen [Juan Jose Escondrillas](#)ekin. Hainbat kanta eta kontu jaso zizkion Nekane Rodriguezek 90. hamarkadan egindako zenbait elkarrizketatan.

Juan Jose Escondrillas Zaldua (-2010)

Zazpi neba-arrebatan nagusia. Alizia Elorduizapaterietxerekin ezkondu zen. Aliziari 90. hamarkadan egindako grabazioetako batean parte hartu zuen panderoa jotzen eta bertso zaharrak abesten. Batzuetan Imanol Arrolak laguntzen dio trikitiarekin.



Urtzi Goiti Ugarte (1977)

Urtzi Goiti, Leioan jaio zen 1977an. Aita Barakaldokoa du eta ama Leioakoa. Amarekin beti egin du euskaraz eta umetatik izan du euskaraz hitz egiteko interesa eta nahia. Biologia ikasketak egin zituen lehenengo eta zoologian espezializatu zen, saguzarren inguruko tesirarekin.



Mari Karmen Lekerika Libano (1925)

Larrakoetxea baserrian jaiotakoa.



Mercedes Lekerika Libano (1928)

Larrakoetxea baserrian jaiotakoa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Euskara batuari buruzko iritzia

- **Hizlaria(k)**: Lekerika Libano, Mari Karmen; Lekerika Libano, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Axpe, Jokin - Lete, Isabel
- **Erref**: LOA-001/001

- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Euskara batuari buruzko iritzia ematen dute.

Transkripzioa

- Baie telebisiñon be asmaten dot nik iten, e, berba "penalti", eta...
- "Fregau".
- Horreek bere ez dira euskera ba! Horreek be beste zera bat eukin behar deude!
- Ba euskera klase asko dau lez... "Fregau", "fregau" nora doa? "Fregau" tresnak garbitu esaten d(og)u guk eta.
- "Fregau" esaten yen... Aitak ba(da)kixu zer esan yotson Zamorari? "Más allá de Portugalete /Portualté/ yo nunca he estado". Portugalete /Portualté/ ba(da)kixu zer zan? Portugalete /Portalté/
- Ez yen /eyen/ jakin erdera ta.
- "Yo más alla que Portugalete /Portalté/ nunca he pasau".
- Eta esateko "que tiene, que estaba su hermana fregando en Somera, estaba 'tresnak garbituando'" [emon yotson /emoyotson/ ulerten]...
- Guk esaten dugu "harrikua ein".
- A, harriko eiten. Ta zurok nongo zare ba?
- Bueno, ni Bilbokoa naz.
- Bai, Bilboko, baie zuk oin [...] ikisiko euskera dekozu, ezta?
- Bueno...
- Ikastolatan ikisiko.
- Ze uste dozue euskeraz, ikastolatako euskeraz, zer uste dozue?
- Nik ikastolako euskera ikusten dot... zelan esango dot /esangot/? Askotatu bat in, askoen artean bat in.
- Bai.
- Eta hori ez deust eretxiten ondo, nik gurego [...] eretxiten deust hobeto bateti asko ite ta ez askoti bat ite.
- Eseri, bihotza, eseri, eseri hor.
- Jarri, zer, lepon?
- Amamaz.
- Ordun zer, zer urten leike batuketan horretatik edo?
- Ba nik pentsaten dot bat beti da bat, ezta? Ta lau beti dire lau. Lauteti bat in te baino...
- Bateti lau ite hobe.
- Bateti lau ite hobe ixengo dala, ezta?
- Ez dakit hori hizkuntzetan egin leikeen gauza den edo ez den.
- Atzera goz ezpabere, lauteti bat baino ez badeu iten, atzera goz, aurreratu gur(e) bad(og)u...
- Ba oin gu aldrebes gabiz.
- Aldrebes zurok, e?
- Bata ikasite oin besteak ikasi gura dogu /gurogu/.
- Oseake zurok duzti gure dozue ikisi?
- Klaro baietz.
- Klaro, ez dau txarto pentsata. Duzti jakitea ondo dau.
- Honbre, gero ona etorri eta hemen eiten dan lez eitea, ta gero horra jun ta...
- Baie beti egoten da fallotxu bet, e.
- Zein fallo ba?
- Ba bazoz beste lekuetara eta ba zeuk bakixu ondo-ondo duzti, hombre todavía, baie bazoz duden gitxi gorabehera... beti dau fallotxu bet.

- Bai, ze ba saltako dau ba beste...
- Ez dozu pentsaten?
- Kontuz alanbreaz, Mertxe!
- Altxa, altxa, hortxe!

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Sorginen ipuinak; berba egiten zuen katua

- **Hizlaria(k)**: Lekerika Libano, Mari Karmen; Lekerika Libano, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Axpe, Jokin - Lete, Isabel
- **Erref**: LOA-001/005
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:08:44. **Bukatu**: 00:10:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Amak kontatzen zizkien sorginen ipuinak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta gogoratzen al dozu halako ipuinak edo zure amak kontatakoak edo zure amamak kontatakoak?
- Gure amak kontakok?
- Bai.
- Sorgiñenak gure dozuz /gurdozuz/ entzun?
- Bai.
- Bai.
- Gure amak kontate yen, euki yen /eukien/ Berangon aizta bat, zaharrena, ezkondute...
- Eseri, bihotza.
- Ezkondute... Ta jon zan behin hareri lagunten hemendi mendirik mendi, eta urtekeran Berangoko uren depositun kontra, ez da(k)it, jon behar ixeten yeden [...] estartan bateti ta urten yeden /urtieden/ txarrik hegaz... Ixen letike posible? Nik sinestu ez. Txarrik hegaz, ta bera jon zan, umen lepoan daule, aizteri lagunten. Ta holau kontuk kontaten yesen atxinekok... Hor goien bere Akarlandan, bere urteten yeden sorginek. Ta katu bet, katu betek ein yotson /eyotson/ berba suhineri. [...] Gixona izen ta goruetan (eg)on zalako, negarrez, (eg)on zalako goruetan, negarrez. Ta bestek esan [yotson]: "Ta katu ixen da berbetan?". Jeurti yotson [...] palu ta beso apurtu yotson katuri. Ta resulta ke hurruko (hurengo) goixen au(b)ek urten yen...
- Beso hausite.
- Apurtute.
- Asike au(b)e zan sorgine.
- Au(b)e ixen zan sorgine. Holau kontuk kontaten yesen atxinen. Gero [...] sorginek galdu ein ziren.
- Polborek galdu yetsen. Polbore urten yenen sorgine duztik desaparezidu zien.

2.2. Apaizaren zigorrak

- **Hizlaria(k)**: Lekerika Libano, Mari Karmen; Lekerika Libano, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Axpe, Jokin - Lete, Isabel

- **Erref:** LOA-001/012
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Apaizak zigortu egiten zituen mezetara ez joatearren. Bazkari eta oinetako kaxkarrak izaten zituzten.

Transkripzioa

- Horrek ordukok eta gau (geu) jotzen gintzezen mezara obligaten yeuskunen abadek: "¿Has ido a misa?", "No señor", "¿Cómo te llamas?", "Petra Gana" , "Para ir a misa no has tenido mucha gana" esaten yotson Don Pedro horrek. Eta para han. "¿Has ido a misa?", "No, Señor". Belauniko parata, holan liburukez kastigo. Ta guk guzurre esan. Esaten gentsen Señoritori: ba etzera etor behar d(og)ule, bezkari eron behar d(og)ule nebakana ta hamaka t'erditen (ed)o hamakatan urteten gendun. Mezara ez gintzezen jotzen bez. Zeitarrik ez gintzezen jotzen? Sarriten ez gendulekon eukiten zapatak joteko...

- Bazkari... bazkari ixeten zan ha, ala? Bazkari ixeten zan ha?

- Elexara abarketakaz eta euri iten yenen bere abarketakaz.

- Bazkari... oin bizten gare, bueno, oin ez daki(g)u zer zera... Nik... ama aiten atzen jotzen zan; nik in behar ixeten neun bazkari, nik ein behar ixeten neun eron, aurrera [...] arten, Sestaura arte, itxeso pasa. Ta...

3. Politika

3.1. Gerra garaian, familiakoak eta nazionalak etxean

- **Hizlaria(k):** Lekerika Libano, Mari Karmen; Lekerika Libano, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Axpe, Jokin - Lete, Isabel
- **Erref:** LOA-001/006
- **Iraupena:** 0:04:48. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:15:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra garaian hogeitaz lagun hartu zituzten etxean, familiakoak. Orduko bizipenak kontatzen ditu. Nazionalak sartu zitzaizkien etxean.

Transkripzioa

- Hemen guda-aroa zelan bizi zenuten, gudan-eta hemendik alde egin zenuten edo hemen bertan geratu zintaten edo?

- Gerran

- Ai, gerran, aitu, eukin neuzen nik gerrana ixen zanen, hamar...

- Gerran hemeti pasa ziren, e.

- Etor ziren, eukin genduzen hemen hogeitaz persona.

- Hor goiko... ha kamaran.

- Hemen kamaran ixeko-osaba batzuk Meñikabarreneti etorrite. Han labapen, labe ixen zana, labapen iten yeden katxarro handi beten sue ta talok iten yedezen /itiedesen/ ixekok mehe-mehetxuk tala-burrinen, tala-burrinen iten yedezen /itiedesen/ talo mehe-mehetxuk. Eta gero zotzazko

eskilara bat (eg)on zan ta horra gora jotzen zien, ta hor euki yen euren katxarrerri duztik. Eta guk ixekori ta osaberi lo eiten itxiteko hor kuartun, amak eta aitek ein oskuen /eiyoskuen/ holau banku luze biaz ta galtzuk imini, galtzu imini banku ganetan.

- Gari [...] hor.

- Bai, galtzuk, gari [...] eta imini ahal in zenik hobetoen hareek ixeko-osaba zaharrak geure ohian sartzeko. Ta halan arregla gintzezen, zemet? hamabosten bat egunen? Igual ez zien helduko.

- Hori noz? Bilbora etorri zirenean edo?

- Sartu zirenen hemen. Horti etor ziren eta gero asturianok Ondizetik.

Asturianok ixen zien gorrik ta nazionalak hametik. Asturianok jon ziren Ondizetik ta bestek etor ziren hameti. Ta egon gintzezen hemen ta eukin genduzen hamen kamaran sartute, hau kamara itsu da, itsu hori kamare, eskilare [hortik] etze atzera eta lau lehegusine Meñikakok eta nire aizta zaharrena kamaran sartute, ze italianok datozela esaten yeden ta enbrari herejik iten dotzezela, henbrari. Bai, sartu zan lelako gixona sartu zan holan kutxillo handi bet agon daule sartu zan, kutxillo...

- Ederra?

- Puf... Nabajerune, e? [...] italiano ixen zan, ta pregunta yen gixonik badau, ta gixonak esan gentzezan ba osabe zaharra, aite ta ez daule beste gixonik ba. Eta sartu ziren hortik eta hara handireko kuarture sartu yeden ametralladora bat. Ta handi bentanatik... erretira yedezen ohe bi oten ziren aiten ta aman kuartun, erretira yeden bentanen paren egon zan ohia, arma yeden ametralladorea Ondizko gorriki tirtuteko. Baie zelau kaja handi hutsitu yedezen han. Ta gero hor ikopera eron yeden, ta horti ikopeti ein yeden /iyeden/. Baie hori in baino lelau, gure aite ta barrioko zaharrak duztik, listok ixen zien koituduk, ta pentsa yeden "nazional sartu dire kaminoti", pentsa barik basorik baso eta ahal daben modun datozala. Ta jon zien [...] batera lau zahar eta mutil gazte... gazteena bat. Zaharrena... hak gaztek aiteri sille erroteko jarritako. Ta ikus yotzen gorrik Ondizko depositu daon lekuti tirtute yotsen, ta gu hor horma eskinetik ukusten gendun zelan holan aiteri jotzen otsen. Aite makinetu on zan ta makinetun kunetatik [korriten yeden] ikopetik aldeatzeaz, ze ya jakin eden /yakieden/ ez dozena kaminotik. Ta [iten gendun] "Aite apara behar dau, Aite apara behar dau!" hemen on gintzezen bildurreaz. Baie hemen gerrarik gerrarik ez zan egon. Paso. Sartu ziren horra, pregunta yen, etor ziren bere atzen partidetu bet, ein eden /iyeden/ euren zera... Lantzen hilan bat egon zan, ze hementxek e hortxek e [...] pinal bat; beheko alderdin okalituk, ixitxuau, ixitxuau. Ta (eg)oten zan leza bat, "tragatierra" edo; esaten yen hara jausten dana zertu iten deule, tragau iten deule, ta bildurreaz egoten gintzezen. Ha zulo, pasa zirenen nazionalak, zarratute egon zan, han enterra ein eden /iyeden/ bataran bat. Eta guk han handirengo... honen etzen han handikalden deku beste hamalau gixelaneko (gizalan) solo bat ta gariez eukin gendun, ta gariz hara jon gintzezenen bere topa genduzen...

- Hildako batzuk?

- Hilek ez, e. Zelan, e, eridek eta zelan, e, egon direnan odolak eta gauzek. Asike deskuideduan bat hemetik bere deskuida zan, ze on zan. Baie gerra modurik ez, pasuen...

3.2. Bi anai gerran hilak

- **Hizlaria(k)**: Lekerika Libano, Mari Karmen; Lekerika Libano, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Axpe, Jokin - Lete, Isabel
- **Erref**: LOA-001/007

- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:15:03. **Bukatu:** 00:16:35
 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai
 - **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena:** Nazionalak janari eske etortzen zitzaizkien, erosteko. Bi anai gerran hil zitzaizkion.

Transkripzioa

- Sinenbargo, horti kaminoti, Goierriti etor zirenak horti jon ziren ganadukez ta errefujiaten, ze asturianuk iten yedesen /itiedesen/ eron, baie hemen gau (geu) ez gintzezen mogidu.
- Bai, gose-eta hemen ezebez...
- Gu gau (geu), gau ez gintzezen mogidu ezetarako, e. Ta gero horti han (eg)on txalen egon ziren sartute nazionalak, eta etorten ziren koneju edo esne edo arrutzek edo saltzen badotsute, lantzen txokolate-pastille bat-eta emoten yeuskuen, baie txarrik ez du ikusi hemen, e. Baie neba bi gerran hil dateaz, e. Bueno bat e, bat gerran, Domingo gerran, Domingo Rusian hil zan. Oseake on zien anaje bi eon zien, zaharrenak biek, soldadu, ta hirugarrena koiu yeden, ha kuarentaiunoko ixen zan ta. Eta trentaiseisekoa etor zanen, ha jon in behar ixen yen. Ta jon zan Afrikara, ta gero Afrikatik, e, boluntario eron badeude ez badeude, baie apenas ixen ziren [...] egik eron yeden ta han garbitu [...]. Ta beste, beste izen zan San Sebastianen soldadu daule, aber emon yotson holan kolitis modure edo holan... Ze laztana?
- Ala jon.
- Jon, jon, enei, ze ekarri dotsu lehengusinek? ze polito!

4. Baserria

4.1. Mendira egurretara

- **Hizlaria(k):** Lekerika Libano, Mari Karmen; Lekerika Libano, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Axpe, Jokin - Lete, Isabel
- **Erref:** LOA-001/009
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Aitarekin mendira joaten zen egurretan, behiekin.

Transkripzioa

- Hantxe gurdi bet (eg)oten zan. Ota, garak-eta sartzen yesen aitek azpin. Han oten zan zestok iminteko "altekixu" bet eta hor gorte, erantzi ez dodaz in iñoz [...] ho(ge)ta bost urtera arte in in dodaz. Gixon, oin jantziten zara frakakaz eta? Ni ordun jantziten nitzen, mendire joteko egurretan eta otatan, aite(g)az.
- Zetan?
- Egurre, ordun ez gendun eukiten iketzatarako dirurik.
- Iketzik bez.
- Iketzik, gitxi (eg)oten zan. Baie joten gintzezen Arriunagara arte, horti Arriunaga, igual, horrek Unbeko etzek, ez dakixu horrek txalek? Horrek han

hemetik aldera, erosten yeden aitek eta beste bost (ed)o sei gixonen arten holan lote handi bet ta (egi)iten yedesen bota gurguxe eta hortaringo egur gogorak, e. Ta (eg)iten yesen, pilo-pilok iminten yotsen hagin bateri lau hagin, besterik bat, sei lagun ixeten baziren iten yedena, sei sozio, sei hagine(g)az pilok, gero botateko sorteon zeinek diren, e. Ta jotzen ziren haien, bestek eukiten yedesen krieduk edo semek, baie gure aitek, gerran (eg)on ziren lez, mutilek, ni ixen nintzen mutile, ta ni jotzen nintzen frakakaz jantzite basora. Ta ieten (igoten) gendun, aite ixeten zan ganadu triste(g)az bildurre bako, ze idirik ez deu eukin iñoz, nik euki banun diru aiteri idik erosko nintzezen, baie neu atzeti parateko, e, eta kiña berari, ze berak be neuri halan iten yesten. Eukiten yesen behie pilekaz imini neu atzeti te pika ta arin ein behar ixeten nendun, neuk be eingo nintzen hori, baie ez nendun eukin hori oportunide...behar...

4.2. Soroan zer ereiten zuten

- **Hizlaria(k):** Lekerika Libano, Mari Karmen; Lekerika Libano, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Axpe, Jokin - Lete, Isabel
- **Erref:** LOA-001/010
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Soroan zer lantzen zuten esaten du: garia, artoa, indabak, sekula-belarra eta frantsesa abereentzat...

Transkripzioa

- Ta ortun zer landatzen zenduen?
- Ortun?
- Bai.
- Gari, arto ta indabe, babe, sekule bedarra ta frantsesa ganaduntzeko. E? Alfafa gitxi. Eta lau behitxu, bost behitxu, horti gora ezin ixeten zien sostenidu hemen, ze ez da ixen iñoz aldeatze handi. Ze gure gureso, gure aititena aldeaz ixen zan etze handiao, ze honek etzek duztik, bere honek etzek duztik eta aldameneko eskolak hor, handikaldera bere aititena ixen zan. Ta gero nau (neu) jaio nintzenen, etor zan osabez hau saltzen Ameriketati, ze osabena ixen zan hau. Osaberi emon yotson.
- [...]
- Osaberi dona yotson aitek hau etze ta gure amari emon yotsozen hogeta hamar ogorleko txikerrari eta hirurogei handiri ta garestiko duzti osaberi, ezta? osaba zaharrenari. Ta osaba zaharrena egon zan Ameriketati. Ta neuk [... dekoazen urte] etor zan hau saltzen.
- [...]
- Eta etor zan saltzen ta gure aitek erosi yen hau, horretxeaz txanteltxuez, hor hori txanteltxu ha arbolana erre kara artekoaz. Ostantzen ixen zan hau aldeatze handi, baie gure aiten denporan ba eskastute eon zan, ze ez zan egon osaberi erosteko... osaberi erosteko modurik duzti. Ulerten dozu?
- Bai, bai, bai.
- Ze hau hamar mile pezetaitik gure aitek erosi yeun, hamar mile pezetaitik, e? Hor horman hasi ta erre kara arteko lurreaz ta beste hamalau gixelan (gizalan) handik alde, baie beste hamarraitik [...] duztik erosko yez. Ta aitek esaten yen: "Gure... -zelan...? - Gabino, gure Gabino etor da Ameriketatik, -barre eingo dozue /eingoze/, e, baie honek egik

die- Ameriketati etor da pito baiño gorriauko sonbreru beteaz, eta hemen erosi sonbreru eta traje barri ta jon da guapo baiño guapoau harantza, oseake horrek han be gose deko. E? Han be gose dekode, ze haxen baziren etorko zan guapoau". Hemen istorik itzelak (eg)on dire!

5. Iritziak

5.1. Ama zortzi urterekin neskame

- **Hizlaria(k)**: Lekerika Libano, Mari Karmen; Lekerika Libano, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Axpe, Jokin - Lete, Isabel
- **Erref**: LOA-001/011
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:22:25. **Bukatu**: 00:23:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Beraien amaren umetako eta gaztetako bizimodua kontatzen du.

Transkripzioa

- Horreek egik ez dire, ala? Gure amak hamaka urte(g)az, ama lotu zan ama barik, ta hogeta biaz aite barik... eta ensegida ezkondu zan gero krieduez, hor auzoko krieduez, ze gure aite kriedu (eg)on zan hor. [...] Bera zortzi urterako jon zan [...] kriedu. Zortzi urteaz [...] zestokadan [...]
- Zortzi urtegaz?
- Ta behin zestokada [nabotxu...] lepon deule, errekatxue pasa behar zien [...] zubitxu beteti te jeusi in zan. Zelan ez yen /eyen/ arrastako ba? Ze oingo umek... ia Amaiak ze eiten deun oin kriedu jonte...
- Amaiak zenbat deko zazpi?
- Zortzi.
- A, zortzi, nagusiya...
- Sinestu be ez lei /elei/, sinestu bere ez, e?

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com